

Behean sinatzen duenak, jaun/andrea, NAN zk. duena

ADIERAZTEN DU:

- a) Eskieran adierazitako informazioa, Curriculum Vitae-a eta erantsitako dokumentuak egiazkoak direla eta errealitatea islatzen dutela.
- b) Honez gain ez dudala hautagaitza nagusiko beste eskaerarik egin Global Training 2023 bekarako (hala ez bada, prozesutik kanpo utziko da, eskaerak bikoizteagatik).
- c) Egunean ditudala diru-laguntzak itzultzeagatik dagozkidan betebeharren ordainketak.
- d) Egunean ditudala zerga arloko betebeharrak.
- e) Ez dudala jaso antzeko ezaugarrietako beste laguntza edo bekarik, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura emandakorik, ez ICEXek, beste administrazio autonomiko batzuek, merkataritza-ganberek, Turespaña-k EBko merkataritza-sustapeneko organismoek edo antzekoek emandakorik, ez eta, eskatutako titulazioa jaso ondoren, organismo multilateraletan edo enpresetan 6 hilabeteko edo gehiagoko praktikak atzerrian egitea ahalbidetzen duen bestelako bekarik.
- f) Ez dudala diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zigor administratiborik edo penalik eta ez dudala betetzen hartarako desgaitzen duen lege-debekurik, sexu-diskriminazioagatik egon daitezkeen debekuak barne, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean adierazitakoarekin bat.
- g) Inolaz ere ez naizela jarriko harremanetan harrera-enpresarekin, hautaketa-prozesutik kanpo geratzeko arriskuarekin.
- h) Bekaren baldintzak betetzen ditudala, zeintzuen arabera, beka emateko unean langabedian egon behar baita.
- i) Bekaduna dela bekaren epealdi osoan dagokion dokumentazioa indarrean eta eguneratuta izatearen arduradun bakarra.

....., 2023kok

Sinadura:

DATUEN BABESA:

Datuak babesteko egungo araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da inprimaki honen bidez jasotzen diren datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela (helbidea: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia), tratamenduaren arduradun gisa jokatzuz. Informazioa Donostia Sustapena S.A.k kudeatuko du, tratamenduaren eragile gisa jokatzuz. Helburua izango da zure erantzukizunpeko adierazpena izapidetzea eta kudeatzea, beka eskaerarekin lotuta.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO), 6.1.

e) artikulua da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoko helburua betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emaniko botere publikoak gauzatzeko, oinarri harturik 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen, eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Ez da aurreikusten datuak hirugarren batzuei lagatzea, legezko obligaziorik izan ezean, ez eta datuen nazioarteko transferentziak egitea ere.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak beharrezkoa den denboran gordeko dira, alegia, datu horiek jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuak tratatzetik etor litezkeen balizko erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denboran. Artxiboen eta dokumentazioaren araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonen eskubidea dute datuetara sarbidea izateko, datuak zuzentzeko eta ezabatzeko, eta, era berean, datuak babesteko indarreko araudian ezarrita dauden beste eskubide batzuk ere badituzte, eta dagokionean eskubide horiek gauza ditzakete.

Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzura jo behar dute (Ijentea kalea, 1, 20003, Donostia).